

# Euskal Herriko gaztelu eta dorretxeak



# Arabán



# Mendozako dorretxea

- ◆ Gasteiz.
- ◆ Arabako lautadaren mendebaldeko muturrean dago, Gasteiztik Koartangorako lerroan.
- ◆ Laña ibaiaren ibi baten ondoan dago.



# Astulez

- ◆ Gaubea.
- ◆ Harkaitz malkartsu baten gainean dago.
- ◆ Astulezko gazteluaren oinarriak itsasontzi baten antza du.



# Ozio



- ◆ Zanbrana.
- ◆ Toloño mendiaren ipar-mendebaldeko zabaldian dago.
- ◆ Ibarra zaintzea zen haren egiteko nagusia.

# Zabalate



- ◆ Zanbrana.
- ◆ Leku harkaiztsu baten gainean dago.
- ◆ Zabalateko herria eta inguruak zaintzeko eta babesteko egina izan zen seguru asko.

# Bizkaian



# Arteaga



- ◆ Gaitegiz-Arteaga.
- ◆ Ereñozar mendiaren magalean dago, mendiaren mendebaldean.
- ◆ Inork ez daki gaztelua hor zergatik dagoen kokatua.



# Butroe

- ◆ Gatika.
- ◆ Gaztelua muino batean dago, harkaitz gainean.
- ◆ Antzina, itsasgoran, ia gazteluraino sartzen zen ura.
- ◆ Butroe gaztelua leinuari ospea emateko eraiki zuten.



# Muñatones



- ◆ Muskiz.
- ◆ Barbadun ibaia itsasoratzen den puntutik gertu, paduraz inguratutako itsasadarreko tontor batean dago.
- ◆ Muñatonesko gazteluzainak ondasun handiak zituen eta oso boteretsua zen.

# Gipuzkoa



# Ataun

- ◆ Ataun.
- ◆ Jentilbaratzako gaztelua ere esaten zaio.
- ◆ Aralarko larre eta sarrietara zihoan bidea gazteluaren kontrolpean jarrita zegoen.



# Iztuitza dorretxea




- ◆ Andoain.
- ◆ Herriko sarreran dago.
- ◆ Defentsarako egin zen.

# Mendikute

- ◆ Albiztur.
- ◆ Mendikute mendiaren goialdean zegoen gaztelua, 815 metrora.
- ◆ Gain horretan gazteluaren egitekoa zein zen jakitea esatea gauza zaila da.



# Lapurdi



# Gaztelu zahar

- ◆ Baiona.
- ◆ Baionan bertan dago, harresien babesean, hiriaren parte handi bat gain behera hartzen duela.
- ◆ Hiria babestea zen gazteluaren eta harresiaren eginkizun nagusia.





# Gixune




- ◆ Gixune.
- ◆ Muino harritsu baten gainean dago gaztelua, eta metro batzuk beherago Biduze ibaia.
- ◆ Biduze eta Aturri ibaietan gora eta behera zebiltzan txalupa, ala eta gainerako ontziak kontrolatzen zituen.

# Senpereko gaztelua

- ◆ Senpere.
- ◆ Lapurdiko gaztelurik ezagunena bide da.
- ◆ Eragin handia izan zuen Lapurdiko gertaera historikoetan.



# Nafarroa Beherea



# Aiherrako gaztelua

- ◆ Aiherra.
- ◆ Muino luze eta estu baten gainean dago kokatua.
- ◆ Aiherrako gazteluaren lehenengo aipamenak 1385ekoak dira



# Gamue



- ◆ Gamue-Zohazti.
- ◆ Biduze edo Ereitia ibai arroan, Amikuzeko lurraldean dago.
- ◆ Gazteluaren egitekoak oso mugatuak ziren: jaurgoaren egoitza eta defentsaleku eta gazteluko jabearen ondasun eta errenten gordeleku zen.

# Latsaga

- ◆ Izura-Azme.
- ◆ Izura herritik gertu dago gaztelua, Biduze ibaiak osatzen duen haranaren malda baten hasieran.
- ◆ Hasieran, eraikin soil bat zen.



# Nafarroa Garaia



# Aberingo gaztelua



- ◆ Aberin.
- ◆ Jurramenditik behera datorren maldaren gain batean ageri da herria, eta herriaren goiko aldean dago gaztelua elizari erantsita.
- ◆ Leku paregabea da Ega ibaia kontrolatzeko.



# Cortesko gaztelua

- ◆ Cortes.
- ◆ Herriaren erdian dago gaur egun.
- ◆ Etxalde bat babesteko asmoz egin zuten, baina hiriko harresia eraikitzean, defentsa sistemaren parte bilakatu zen.



# Deio



- ◆ Villamayor de Monjardin.
- ◆ Mendi baten tontorrean dago, harkaitz gainean.
- ◆ Nahitaezkoa zen zenbait haran babesteko.

# Kabrega

- ◆ Mues.
- ◆ Kabrega gainalde baten muturrean dago, Berrueza haranaren erdian.
- ◆ Erdi Aro Beranteko jaunaren egoitza zen.



# Marcillako gaztelua



- ◆ Marcilla.
- ◆ Kaleko gaztelua zen.
- ◆ Jauretxeek zituzten egiteko berak zituen gaztelu honek: jaunen egoitza zen, baita babesleku ere; jabearen ondasunen kudeaketa bertan egiten zuten, eta haren ospea alde guztietara hedatzen zuen.

# Xabierko gaztelua



- ◆ Xabier.
- ◆ Haitz baten gainean eraikia dago, Undues erreka eta Aragoi ibaiaren artean.
- ◆ Hasierako eraikina dorre bat zen.
- ◆ Behatoki zen bereziki.

# Zilegieta

- ◆ Ibargoiti.
- ◆ Muino baten gainean dago gaztelua.
- ◆ Aldian aldiko jaunaren egoitza eta administrazio etxe izatea zen gazteluaren egiteko nagusia.



# Zuberoa



# Mauleko gaztelua

- ◆ Maule.
  - Maule-Lextarreko multzoaren hegoaldeko muino baten gainean dago gaztelua.
- ◆ Gaztelua Zuberoako agintarien egoitza izan zen.

